

JARDUERA-PLANA

(22. ASTETIK IKASTURTE AMAIERARA)

Estatistika Metodoak Ingeniaritzan – 2. bertsioa

Kudeaketaren eta Informazio Sistemen Informatikaren Ingeniaritzako
Gradua (2. kurtsoa)
Industria Elektronikoren eta Automatikaren Ingeniaritzako Gradua (1.
kurtsoa)
Ingeniaritza Mekanikoko Gradua (1. kurtsoa)
Industria Kimikaren Ingeniaritzako Gradua (1. kurtsoa)

2020/04/16

Irakasgaiaren koordinatzailea
[Álvaro Rodríguez Miranda]

AURKIBIDEA

1. Eduki teoriko-praktikoak
2. Metodologia
3. Ebaluazio-sistemak
4. Ohiko deialdia: orientabideak
5. Ez-ohiko deialdia: orientabideak

1. EDUKI TEORIKO-PRAKTIKOAK

[Atal honetan, 22. astetik ikasturtearen amaierara arte garatuko diren eduki teoriko-praktikoak jasoko dira, gaur egungo irakaskuntza ez-presentzialaren egoera kontuan hartuta.]

Irakaskuntza-gidan honako zazpi gaiak aipatzen dira:

- 1.Gaia. Estatistika deskribatzailea.
- 2.Gaia. Doikuntza metodoak: Erregresioa eta korrelazioa.
- 3.Gaia. Probabilitatea.
- 4.Gaia. Aldagai aleatorio diskretuak.
- 5.Gaia. Aldagai aleatorio jarraituak.
- 6.Gaia. Estimazioa.
- 7.Gaia. Hipotesi-kontrastea.

Aurrez-aurreko irakaskuntza geldiaraztean, bigarren gaia bukatzeaz zegoen. Hortik aurrera, eskolei ikasgelaz kanpo jarraitzen diegu.

2. METODOLOGIA

[Atal honetan, 22. astetik ikasturtearen amaierara arte erabiliko den metodologia jasoko da, egungo irakaskuntza ez-presentzialaren egoera kontuan hartuta.]

2.1. IKASGELAKO KLASE MAGISTRALAK ETA PRAKTIKOAK

[Atal honetan, aurrez aurreko jarduerak ordezkatuko lituzketen jarduera birtualak jasoko dira. Ez da jarduera bakoitza espezifikoki adieraziko, prestakuntzarako erabilitako tresnak eta prozesua baizik.]

Alde batetik, ikasleek eGelan gai bakoitzeko apunteak eta ariketa-sortak (ebazpenekin) eskuragarri dituzte. Eskola “magistralak” aurkezpenen bidez egiten direnez, lagungarri diren fitxategi batzuk eskegitzen zaizkie: diapositibak, testuak, audioak, adibideak ebatziak, eta abar. Aldian behin, irakasleek ikasleak entregatzeko ariketak bidaliko dituzte.

Proposatutako jarduerak ikasleen aritzea betetzeko lain direlakoan gaude, hau da: lau eskola-orduak gehi sei lan-orduak astero.

2.2. MINTEGIAK

[Atal honetan, aurrez aurreko jarduerak ordezkatu lituzketen jarduera birtualak jasoko dira. Ez da jarduera bakoitza espezifikoki adieraziko, prestakuntzarako erabilitako tresnak eta prozesua baizik.]

Irakasgai honek ez du mintegirik.

2.3. LABORATEGIKO PRAKTIKAK ETA ORDENAGAILUKO PRAKTIKAK

[Atal honetan, aurrez aurreko jarduerak ordezkatu lituzketen jarduera birtualak jasoko dira. Ez da jarduera bakoitza espezifikoki adieraziko, prestakuntzarako erabilitako tresnak eta prozesua baizik.]

Irakasgai honek ez du ez laborategiko ezta ordenagailuko praktikarik.

3. EBALUAZIO-SISTEMAK

[Atal honetan, irakasgaia ebaluatzeko erabilitako tresnak eta kalifikazio-ehunekoa jasoko dira.]

Irakaskuntza-gida dioenez, ikasleek bi aukera dituzte ebaluazioa egiteko:

- I) EBALUAZIO JARRAITUAREN SISTEMA. Kurtsoan zehar egindako jarduerak azken notaren % 30 balioa izango dute (% 20 azterketa partzial batean eta beste % 10a ariketa eta test-en bitartez) eta deialdiko azterketen garaian egingo den proba idatziak azken notaren % 70 balioko du.
- II) AZKEN EBALUAZIOAREN SISTEMA. Azken ebaluazioaren sisteman, deialdiko azterketen garaian egingo den proba idatziak kalifikazioaren % 100 balioko du.

Besterik ezean ebaluazioa jarraitua izango da. Azken ebaluazioaren sistema hartu nahi izatekotan, ikasleek ebaluazio jarraituaren sistemari uko egin beharko diote, horretarako, eskaera idatzia aurkeztu beharko dute martxoaren 31a baino lehen.

Azken proba aurkeztu ezean, kalifikazioa "Ez Aurkeztua" izango da, nahiz eta kurtsoan zehar planteatutako lanetan parte hartu izana.

Itxialdiak ez dio eragiten ebaluazio-sistemari. Ebaluazio jarraituaren sistemari dagokionez, azterketa partziala dagoeneko eginda zegoelako eta gainontzeko jarduerak eGelan bitartez egin daitezkelako.

Azken proba idatziari dagokionez (%70 ebaluazio jarraitua eginez gero eta %100 azken ebaluazio eginez gero), hasierako proposamena bertan behera utzi behar dugu, horren ordez honako bi jarduera motak erabiliko ditugu:

- a) Alde batetik, “off-line” deritzon zatia, azterketaren eguna baino lehen argitaratuko diren ariketen bidez. Ariketa horiek, ikasleek denboraz egin ahalko dituzte eta eGelaren bitartez bidaliko dituzte beranduenez azterketaren egunerako. Ariketa kopurua eta dagozkien puntuak honako hauek izango dira.
 - a. “Ebaluazio jarraituari” jarraitzen diotenentzat: 2 ariketa, 4 puntu lortzeko.
 - b. “Azken ebaluazioari” jarraitzen diotenentzat: 3 ariketa, 6 puntu lortzeko.
- b) Bestalde, “on-line” deritzona. Azterketaren egunean denbora tarte mugatuetan egingo diren hainbat ariketa osatuko dute zati hau. Ariketak eGelan egongo dira eta, gutxi gorabehera, ikasleek ordu bat izango dute ariketa bakoitza egiteko eta bidaltzeko.
 - a. “Ebaluazio jarraitua” egiten dutenak, 2 ariketak egingo dituzte, 3 puntu lortzeko.
 - b. “Azken ebaluazioa” egiten dutenak, 3 ariketak egingo dituzte, 4 puntu lortzeko.

4. OHIKO DEIALDIA: ORIENTABIDEAK

[Atal honetan, ebaluazioa egiteko ikasgaiari planteatutako prozedurak jasoko dira, ebaluazioa aurrez aurre egin ezin bada.]

“Off-line” zatiari dagokionez, ikasleek ariketak banaka edo binaka egin ditzakete. Entregatzeko epea azterketaren egunean bukatuko da, zehazki, Maiatzaren 22an arratsaldeko 14:00an; nolahi ere, ikasleek badute epea bukatu baino lehen lanak bidaltzeko aukera.

Ariketetan, hainbat emaitza desberdin izango dira posible, alde batetik, datu sorta ezberdinak aukeratu ahal izango direlako eta, bestalde, norberaren iruzkinak jarri beharko dituztelako. Jakina denez, ikasleek, haien artean hitz egingo dutelakoan gaude, hala ere, **ARIKETA BERDIN-BERDINAK EZ DIRA ONARTUKO**.

Lanaren benetakotasuna eta irakasgaiarekiko trebetasuna bermatzeko asmoz, egoera susmagarrietan ikaslearen kalifikazioa geldiaraziko da eta irakasleek eskura izango dute ikaslearekin harremanetan jartzea (dela telefonoz, dela bideo-saio baten bidez) lana aztertzeko, ikasleek sinatutako *UPV/EHUK jokabide makurrak eragozteari eta etika akademikoari buruzko protokoloarekin ados etortzeko*.

“On-line” zatiari dagokionez (azterketaren egunean egitekoa), ariketak eGelan argitaratuko dira eta, osagarri gisa, posta elektronikoaren bidez bidaliko dira. Ikasleek ariketa hauek BANAKA eta idatziz egingo dituzte; bukatu ondoren, ariketa eskaneatuko dute (argazkiak ere onartuko dira) eta eGelan igoko dute (ahal izanez gero, hala ere, eragozpen teknikoren bat izanez gero, fitxategiak posta elektronikoaren bidez ere bidali ahalko dituzte) esleitutako epeak bukatu aurretik.

Ikasleen kontrolez kanpoko arrazoiengatik uneko komunikazioa galtzen bada, ikasleek irakasleari jakinaraziko diote, ahalik eta lasterren (posta-elektronikoaren, telefonoaren edo eGelaren bidez) hautabideren bat antolatzeko.

Erreferentzia gisa (nahiz eta antolaketa hau behin-betikoa ez izan), ariketak maiatzaren 22an, ostiralean, argitaratuko ditugu goizeko 9:00etan, 10:00etan eta 11:00etan eta ikasleek ordu bana izango dute ariketak egiteko eta bidaltzeko; hau da, hurrengo ariketa argitaratzeko unean, aurrekoa dagoeneko bukatuta egongo da. “Ebaluazio jarraitua” egiten dutenek lehenengo eta bigarren ariketak egingo dituzte; “azken ebaluazioa” egiten dutenek, berriz, hiru ariketak egingo dituzte.

Proba guztiak egin ondoren (testak, off-line eta on-line ariketak), nota guztiak batuko dira azken kalifikazioa lortzeko. Zatika gainditzea ez da beharrezkoa, hau da, batura nahikoa izanez gero, irakasgaia gaindituztat emango da.

5. EZ-OHIKO DEIALDIA: ORIENTABIDEAK

[Atal honetan, ebaluazioa egiteko ikasgaian planteatutako prozedurak jasoko dira, ebaluazioa aurrez aurre egin ezin bada.]

Osasun egoera arintzen bada, ez-ohiko azterketa ikasgelan egingo da. Azterketa bospasei ariketa izango ditu eta notaren %100 balioko du.

Aurrekoa posiblea ez bada, ohiko deialdirako azaldu den “on-line” jokatzeko era erabiliko dugu.